

Mixel Zanpatzar

Euskal Haziak elkarteak urtero idazketa txapelketa antolatzen du. Aurtengo gaia «Hitza ahoan» da: hitz arraroak, hitz galduak eta hitz bakanak erabili behar ukan dituzte idazleek!

Zorigaitzez... bidaiariak plater nagusia jan zuen. Peio deitzen zela erraiteko denbora ukan zuen bakarrik, jan zuen eta segidan lurrera erori zen. Zerbitzaria izitu zen eta berehala sukaldariaren ikusterat joan zen.

- "Mixel, zer eman duzu gizon gaixo honen erretiluan? Xuri xuria da eta begiak ez ditu gehiago idekitzen"... zion Nereak.

- Alta eguneroko bezala, eguneroko errezeta egin dut...

- Ados eta esplikatzeko ahal duzu orduan zendako gure bezeroa edendu den?

- "Nekatua edo bakarrik ahula izan behar baita" erantzun zion kozinari irri tipiki eta maltzur batekin.

Nereak erdiz entzuten zuen mediku baten deitzen okupatua zelako... eta kutxa bat ikusi zuen sukaldariaren xoko batean gakoak itxita. Zurezkoa eta urrezkoa zen. Nereari bitxia egiten zitzaion egundaino ez zuelako holakorik ikusi. Anartean gizon lodi eta handia desagertu zen. Orduan bere lankidea denetan xerkatu zuen debaldetan... bainan oroitzen zen bere lepoaren itzulian beti giltza bat bazuela, seguraski kutxa idekitzeko giltza.

Arrabots handi bat entzunez, tabernarat berriz itzuli zen. Peio iratzarri zen. Gertatu zena kondatu zuen eta muttiko gazteak esplikatu zion bere itsasontzian ber kutxa bazela bainan zilarrezkoa, bere giltzarekin idekitzen saiatuko zela.

Klik klak eta klik, ezker eskuin itzulirik kutxa ideki zen, barnean milaka pozoi bazen. Beldurrez ihes egin zuten poliziarenganat joateko. Istoria hori kondatu zutelarik, poliziak esplikatu zuen gizon hori ezagutzen zutela eta haur-jalea zela eta bereziki marinela gazteak gustukoak zituela.

Orduan, denak haur jalearen etxerat joan ziren, gizon bitxi honen gelditzeko. Zer sorpresa, bere etxean ehunka oilasko, xerri eta ardi ikusi zituztelarik. Barnean, hiru haur gaixo karioletan abiltuak ziren, gizon

lodiak pausa egiten zuen anartean bainan nehorik ez zakienez gizon azkarra eta gizona gelditu. Orduan Peio atera zuen goizago ebatsi zuen pozoina haur jalea gehiago lokarrarazteko. Etxean denetan miatu zuten, haurrak askatu zituzten eta bere bulegoaren gainean nortasun karta bat atzeman zuten. Gizon hori ez zen Mixel deitzen bainan Zanpatzar. Orduan denek erabaki zuten, neguko bukaera eta primaderako hastapena baitzen, herriko plazan erretzea. Zanpatzar erdi lokartua zen oraino, Peio eta poliziak sua ipurdian eman zituztelarik. Joaldunen arrabotsak bere oihauek gorde zituzten.

Peio eta Nerea ezkondu ziren, ostatu bat ideki zuten. Uros bizi izan ziren, betirako.

Aupa Peio, aupa Nerea!

*Matilda Luberiaga, Peio Sarasola,
Soline Walck Matis Gicquel
San Mixel eskola, Ziburua
3. zikloko biarrenak - taldeka*

Euskal Haziak elkarteak urtero idazketa txapelketa antolatzen du. Aurtengo gaia «Hitza ahoan» da: hitz arraroak, hitz galduak eta hitz bakanak erabili behar ukan dituzte idazleek!



Endika zorteduna

Gau beltza zen. Endika bere lagunekin ibili ondoren ebatera abiatu zen goizeko ordu txikitana. Kaletik ez zegoen argi gehiegirik, ilargi berria zen eta kale-argiek ez zuten gehiegi argitzen.

Etxera iristen ari zenean argitxo bat ikusi zuen zuhaixka artean. Izutu zen, "zer demontre da hori?" pentsatu zuen ikaraturik. Halere hurbildu zen. Argia aurkitu zuenean liluraturik geratu zen, ipurtargi bat hirusta gorri baten ondoan ikusi zuen, baina ez zen edozein ipurtargia! Handia zen, sagar baten tamainakoa gutxi gorabehera.

Endika gaixoak ez zekien zer egin, txundituta geratu zen ipurtargi bondi hori ikustean. Baina, ebatera iritsi nahi zuen leher eginda zegoelako.

Ohean sartu eta ezin zuen lorik hartu, pentsatzen zuen nondik iritsiko zen ipurtargi hura. Logelatik ixil-ixilik atera zen soinurik egin gabe, inork entzun ez dezan. Zuhaxketara iritsi zenean errestan ibili zen ipurtargia ikusi zuen lekuraino, baina ez zegoen. Orduz geroztik iluntzean zuhaixken aurrean etzanda geratzen zen Endika bere gogoetarako koa-demoarekin ipurtargiaren zain. Arratsaldeko ordu horietan gogoeta egitea gustuko zuen.

Egunak igaro ziren ipurtargia ikusi gabe, baina egun batean, lasai-lasai zegoela, bere gogoeta momentuan altxaliti bat sorbalduan jarri zitzaion, txuria eta laranja zen, oso polita. Minutu batzuk beranduago argi bat ikusi zuen zuhaixken artean, azkar joan zen argirantz, eta han zegoen ipurtargia, geldink, Endikaren zain

egongo balitz bezala. Elkarri begiratu zitoten, ipurtargiak keinu egin, eta alde egin zuten.

Momentu horrek Endikaren bizitza osoa aldatu zuen. Inork ez daki nola edo zergatik baina orduz geroztik, Endika zorte handiko pertsona bilakatu zen. Zoriturik, ipurtargiak eta Endikak ez zuten berriro elkar ikusi.

Hala bazan, edo ez bazan, Endika zorteduna sar dadila kalabazan!

*Iraia Rosa Gomez
Jondoni Bixintxo kolegioa,
Hendaia 3. zikloko irabazlea -
bakarka*



Euskal Haziak

euskalhaziak@gmail.com



Euskal Haziak elkarteak urtero idazketa txapelketa antolatzen du. Aurtengo gaia «Hitza ahoan» da: hitz arraroak, hitz galduak eta hitz bakanak erabili behar ukan dituzte idazleek!

Liliaren ametsa

Neska batek, egunero marrazten du arbola biziki handiaren ondoan. Bere herriko arbolarik politena eta zaharrena da. Lilia deitzen da, hamahiru urte ditu eta natura anitz gustatzen zaio! Bere denbora pasatzeko, anitzetan marrazten ditu mundu miragarriak. Altxalili anitzekin, lore oso politekin, adar bakarrekin denetan eta iratxo berde eta ttipiak gaztelu magiko batean. Egun batean marraztu duen altxaliliak bizia hartzen du! Hirusta gorri bat emaiten dio. Neskak ez duelako ulertzen, altxaliliak esplikatzeko mundu miragarrian izaiteko, behar duela hirusta gorriaren petalo bat jan. Orduan jaten du, eta bere marrazkien munduan aurkitzen da, badira animale anitz eta arbola ederrak denetan.

Mundu normalerat itzultzeko, bere arbolaren azpian zilo bat bada eta pasatzeko behar du herrestan ibili. Egun hori geroztik, marrazten ditu beste mundu motak, biziki desberdinak eta izigarriak! Gau guziz joaten da, afaldu eta gero ikusteko bere marrazkiak errealitate bilakatzeko diren edo ez eta gau guziz bidaiatzen du. Baina egun batez ezin du gehiago mundu miragarritik atera, gauean ekaiz biziki lodi bat pasatu delakotz eta bere herri osoa xehakatu izan delako. Bere arbola desagertu da, orduan ez da gehiago joaten ahal mundu normalera zilorik gabe.

Halere akitu delakotz belarren gainean jartzen da. Gau beltza jin orduko lo egiten du, ipurtargi bat ikusiz. Espero du

iratzartuko delarik berriz etxerat sartzen ahal delako!

Baina argi hori ez da ipurtargi bat... bere ganberaren argia da amets bat zelako! Bere ohetik altxatzen da, bere ametsa kondatzeko bere aitameri! Esplikatzeko duelarik, berinaren gainean altxalili bat ikusten du hirusta gorri batekin. Amets bat zen?...

Melina Moyer, Maiana Madrid, Lara Rossner, Lola Echeverria San Mixel Garikoitz kolegioa, Kanbo 4. zikloko irabazleak - taldeka


Euskal Haziak
euskalhaziak@gmail.com

Euskal Haziak elkarteak urtero idazketa txapelketa antolatzen du. Aurtengo gaia «Hitza ahoan» da: hitz arraroak, hitz galduak eta hitz bakanak erabili behar ukan dituzte idazleek!

Gau bereziak

Egun batez, Euskal Herriko herri ttipi batean Zuraide izena zuena, Juan izeneko gizon bat han bizi zen. Hogoita bi urte zituen. Arrats batez, bere baratzean zelarrik marrazki bat egiten, meteorito bat erori zen haren aitxineran. Hurbiltzean, sentsazio bitxi bat senditu zuen. Bat batean, meteoritoaren baretik milaka ipurtargi eta altxalili atera ziren. Juan izitu eta lasterka ebaxera sartu zen baina ipurtargi batek xixtatu zuen. Maixan, bere emaztea oihauek entzun eta, lasterka atera zen. Jakin gabe bera ere xixtatua izan zela altxalili batengandik. Maixan ere lasterka ebaxera sartu zen. Biharamunean, bikotea egun guziaz bitxi senditu zen. Gauerdian, Juan xutitu zelarrik baso bat ur edateko, oihauek hasi zen bere emaztearen boza entzun baitzuen bainan ez zuen ikusten. Ganbaran, Maixanen ordeztu altxalili bat ikusi zuen. Ulertu zuen Maixan altxalili bilakatu zela. Eta ohartu zen bera ez zela altxalilia bainan ipurtargia. Harrituak ziren bainan halere pixka bat uros itxuraz aldatzea. Elgarrekin kalakan hasi ziren:

«Nolaz aldatu gira?»

Maixanek galdegin zuen.

- Ez dakit, zer berezi pasatu da gure bizian?

- Ah bai! Atzoko meteoritoaren banean ipurtargiak eta altxaliliak baziren.

- Hori bera!»

Ondoko egunetan Maixan eta Juan ohartu ziren xixtatuak izanez geroztik ipurtargi eta altxalili bilakatzeko zirela gau guziz eta goizetan itxura normala hartzen zutela.

Hiru urte geroago, bi haur ukan zituzten: Xexili eta Xantxo, bixkiak ziren.

Haurrek hamabost urte zituztelarik, Juan eta Maixanek momentua atzeman zuten haien istorio bitxia kondatzeko.

«Xexili, Xantxo, jiten ahal zirezte baratzean otoi?»

- Bai, zer pasatzen da? Deus graberik?

- Ez, bainan berezia den istorio bat kondatuko dauzuegu. Gure egiazko istorioa da.»

Istorioa bukatu eta, galdera anitz bazituzten:

«Zer egiten duzue? Zer jaten duzue? Lagunak badituzue? Min egiten du aldaketa denboran?»